

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

2867

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 9koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2023rako honako dirulaguntza hauen erakunde onuradunak: langabeen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailtza eta landa-garapena bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta.

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, eta langabeen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailtza eta landa-garapena bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko (Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta) 2023ko dirulaguntzen erakunde onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, baita jaso duten dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak erabaki bidez onartu zuen aipatu dirulaguntzen deialdi hori, 2021eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, eta horren 7.10 artikuluan ezartzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ezarriko dela erakunde onuradunen zerrenda EHAAn argitaratzea.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2023rako honako dirulaguntza hauen erakunde onuradunak: langabeen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailtza eta landa-garapena bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta. Zerrendan, gainera, jasoko dira espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako laguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 9a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

2025eko ekainaren 26a, osteguna

ERANSKINA

Espediente-zk.	Erakunde eskatzailea	Dirulaguntza eurotan
2326002	Innovación y Coordinación en Estrategias Formativas, S.L.	249.600,00
2326003	Ipartek Servicios Informáticos, S. Coop.	62.400,00
2326004	Sarriko Business School, S.L.	234.000,00
2326005	Centro Informático y de Gestión Meatze, S.L.	52.000,00
2326006	Arriberry Formación, S.L.	10.400,00
2326007	Calasanz Santurtzi, S.L.	52.000,00
2326008	Urko Servicios de Prevención, S. Coop.	70.200,00
2326009	Konectia Servicios Integrales, S.L.	249.600,00
2326011	Casa Maristas -San José-	35.360,00
2326012	Fundación Legarra Echeveste	6.240,00
2326013	Nazaret Fundazioa	21.840,00
2326014	Urola Garaiko Fundazioa	10.400,00
2326015	Zabaltzen-Sartu Koop. Elk.	23.400,00
2326018	Fundación Gizakia	31.200,00
2326019	Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano Sortarazi	12.480,00
2326020	Asociación contra la Exclusión Social Margotu	7.800,00
2326021	Centro de Formación Profesional Academia Ibaiondo, S.L.	15.600,00
2326024	Gabinete de Recolocación Industrial, S.L.	39.000,00
2326025	Edukeibar, S.L.	62.400,00